

## **2006-03-07ko OHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta sei urteko martxoaren zazpian, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza Aretoan, ohiko batzarra egin zuen Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru zuela.

Agustin Zubeldia Iraola, M<sup>a</sup> Jesús Otaño Zumeta, Aitor Lasa Olalde, Eugenio Loidi Garmendia, Jose Luis Olano Zubeldia eta Gregorio Lasa Etchezarreta zinegotziak izan ziren bileran.

Udaleko idazkariak –Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak– egin zituen idazkari-lanak.

Alkateak bilkura publikoa ireki zuen; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi zuen bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baitzen.

### **1. PUNTUA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (05-12-20; 06-01-24; 06-02-21).**

2005eko abenduaren 20ko ezohiko saioaren, 2006ko urtarrilaren 24ko ezohiko saioaren eta 2006ko otsailaren 21eko ezohiko akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki zuen Udalbatzak hauek onartzea.

### **2. PUNTUA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Aho batez erabaki zuen Udalbatzak Alkatezaren dekretu hauen berri jaso izana adieraztea:

-05/12/20ko 137/05 Dekretua: 2005eko jaietako fakturak onartzea. Kopurua: 21.799,40 €

-05/12/27ko 138/05 Dekretua: gizarte larrialdiko laguntza ematea 134-E espedienteari.

-05/12/27ko 139/05 Dekretua: 6 etxebizitzako eraikinaren %10aren aprobetxamenduko kalkulu ekonomikoa aldatzea.

-05/12/27ko 140/05 Dekretua: Laskibarren 12 etxebizitza egiteko baimena ematea Promociones y Construcciones Kisket S.L.ri

-05/12/29ko 141/05 Dekretua: Josune Insaustiri udal-baimena ematea obrak egiteko.

-05/12/29ko 142/05 Dekretua: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbustea 9309-CJS ibilgailua.

-05/12/29ko 143/05 Dekretua: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbustea SS-9195-AM ibilgailua.

-05/12/29ko 144/05 Dekretua: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbustea SS-0744-AW ibilgailua.

-06/01/03ko 1/06 Dekretua: euskara ikastaroetara joateagatik diru-laguntzak ematea.

-06/01/12ko 2/06 Dekretua: azaroko fakturak onartzea. Kopurua: 21.712,82 €

-06/01/12ko 3/06 Dekretua: abenduko fakturak onartzea. Kopurua: 26.885,39 €

-06/01/12ko 4/06 Dekretua: pabilioiko 2 solairua egiteko udal baimena ematea Irura Motor S.A.-ri

-06/01/25ko 5/06 Dekretua: 543/05 espedientea dagokion jurisdikzio-organoari bidaltzea.

-06/01/31ko 6/06 Dekretua: gizarte larrialdiko zenbait laguntza ematea.

-06/01/31ko 7/06 Dekretua: etxez etxeko laguntza ematea 87-E espedienteari.

-06/01/31ko 8/06 Dekretua: Zillar Kalea, 8 etxearen jabekideei igogailua jartzeko udal baimena ematea.

-06/01/31ko 9/06 Dekretua: Sohercon S.A.rekin kontratua eteteko espedientea hastea.

-06/02/1ko 10/06 Dekretua: Iosu Alonsoren eskaera ontzat ez ematea jarduera legalizatzeko.

-06/02/1ko 11/06 Dekretua: Katategi Bailara, 1 zenbakidun bialaren erabilpena berreskuratzea kargarako arrapala kenduz.

-06/02/2ko 12/06 Dekretua: Guibe Tailerrako S.A. enpresari mekanika orokorra jarduera irekitzeko lizentzia ematea.

-06/02/2ko 13/06 Dekretua: Inmobiliaria Amocar S.A.ren espedientea bukatutzat ematea.

-06/02/3ko 14/06 Dekretua: 5 Zonalderako Xehetasunezko azterketari hasierako onarpena ematea, Lurra S.L.ek eskatuta.

-06/02/13ko 15/06 Dekretua: 2006ko Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergari buruzko errolda onartzea.

-06/02/13ko 16/06 Dekretua: urtarrileko fakturak onartzea. Kopurua: 40.574,21 €

-06/02/15ko 17/06 Dekretua: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea 6678-DGM ibilgailua.

-06/02/15ko 18/06 Dekretua: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea 3870-CSZ ibilgailua.

-06/02/17ko 19/06 Dekretua: 2.482,80 €ko dirulaguntza ematea Ametsa Pilota Elkarteari.

-06/02/22ko 20/06 Dekretua: Gregorio Oyarzabali baimena ematea etxeko leihoak aldatzeko.

-06/02/22ko 21/06 Dekretua: Manuel Molinari baimena ematea etxeko leihoak aldatzeko.

-06/02/22ko 22/06 Dekretua: Mikel Diaz baimena ematea etxeko leihoak aldatzeko.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

### **3. PUNTUA**

#### **BERRONESTEA, HALA BADAGOKIO, AMETSA PILOTA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA EMATEN DION 19. DEKRETUA.**

“Ametsa Pilota Elkarteak diru-laguntza eskaera aurkeztu du, 2004/2005 ikasturtean zehar Pilota Eskolan egindako lanengatik; kopurua 2.482,80 eurokoa da. Beraz, premia duelako,

#### **ERABAKI DUT:**

Lehena.- 2.482,80 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.

Bigarrena.- Nolanahi ere, eskatzailearen ordezkariak honako dokumentuak aurkeztu behar ditu:

Arduradunaren aitortpena, adieraziz, ez dagoela diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Lege orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea berretsi dezan.

Akordio hau behin betikoa da bide administratiboan. Beraren aurka, administrazioarekiko auzietako errekurtsua ipini ahal izango da, Donostiako

administrazioarekiko auzietako epaitegietan.”

Hori dela eta, udalbatzak berronestea erabaki du aho batez.

#### **4. PUNTUA**

### **BERRONESTEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSALDEKO LURRALDEKO ZATI-PLANAREN AURRERAKINARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA.**

Jakinarazi da Alkatetza honek Tolosaldeko Lurraldeko Zati-planaren Aurrerakinari egindako alegazioa, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutakoari.

Hori dela eta, udalbatzak alegazioa berronestea erabaki du aho batez.

#### **5. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2006ko JARDUERA EKONOMIKORAKO UEMARI EGIN BEHARREKO EKARPENA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du 2006 urteko jarduera ekonomikoari dagokion UEMAREN kuota onartzea, udal hau mankomunitate horretako partaide baita. Kuotaren kopurua 5.308 eurokoa da eta ordaintzeko erabakia ere hartu du udalbatzak.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **6. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, LOATZO UDALERRIEN MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPENA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du Loatzo Udalerrien Mankomunitateari 2006 urteko jarduera ekonomikoari dagokion ekarpena onartzea, udalerrri honetako ikasleei musikako klaseak emateagatik. Kuotaren kopurua 35.141,02 eurokoa da eta ordaintzeko erabakia ere hartu du udalbatzak.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **7. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUDEL ETA NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA S.A.U.-ren ARTEKO HITZARMENA, UDALEK TOKIKO JABARI PUBLIKOA MODU PRIBATIBOAN ERABILI EDO MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIKO TASA KUDEATZEKO.-**

EUDEL eta Naturgasek sinatutako hitzarmena ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

1.- EUDEL eta NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA S.A.U.k tokiko jabari publikoa modu pribatiboan erabili edo modu berezian aprobetxatzeagatiko Udalen tasa kudeatzeko sinatutako akordioan sartzea.

2.- NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA S.A.U.-rekin egindako likidazioen gaineko desadostasunik balego, Udalak konpromisoa hartzen du EUDELI jakinarazteko zein den desadostasunaren arrazoa, akordio bat arbitratzeko.

3. EUDELEK konpromisoa hartzen du bost laneguneko epean Bitartekaritza

Mahaia deitzeko, desadostasuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4. EUDEL, NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADOR S.A.U. eta eragindako Udalak osatutako Bitartekaritza Mahaia hiru hilabeteko epea izango du gatazka konpontzeko, desadostasunaren berri EUDELen jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5. Atxikimendu honen bitartez eta hitzarmen honen markoan, Udalak konpromisoa hartzen du, edozein ekintza legal edo administratibo egin aurretik, sortu litekeen gatazka konpontzeko Bitartekaritza Mahaia deitzeko. Gatazka konpondu barik laugarren atalean ezarritako epea pasatzen bada, kaltetutako Udalarekiko hitzarmen hori automatikoki deuseztuta dagoela ulertuko da, lehen aipatutako ekintza judizial edo administratiboak hasten baditu.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **8. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDALEKO LANGILEEN 2006KO LAN EGUTEGIA.-**

2006 urterako udal-langileen lan-egutegiaren berri eman zaio Udaltzari, honako zerbitzuetan banatuta:

- Bulego Orokorra
- Zerbitzuak
- Kultura
- Eraikinen garbiketa
- Gizarte Zerbitzuak
- Euskara

Beraz, Udaltzak aho batez erabaki du honakoa:

Onartzea aurkeztutako lan-egutegiak honakoak kontuan izanda:

- Lanaldi orokorra urtean 1.592 ordukoa izango da.
- Urteko oporrak 24 lanegun izango dira, astelehenetik ostiralera.

-Ez da zubirik izango. Zubiak norberak eskatu beharko ditu, oporren edo aparteko orduen kontura, eta ziurtatu egin beharko du dagokion zerbitzua ematen duela.

-Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, lanaldia egunean 7 ordukoa edo astean 35 ordukoa izango da.

-Hau guztia, aurreko EUDEL eta sindikatuen artean har dezaketan akordioari kalterik egin gabe.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, bertaratuek presako egoera adierazi zuten, eta 781 /1.986 Legegintzako Errege-dekretuaren 51. artikulua araberako korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa ordezkatzen zuten, ondorengo gaia aztertu zuen udaltzak:

## **9. PUNTUA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO ZABOR BILKETA ZERBITZURAKO KONTRATUA LUZATZEA.-**

Udal hau Tolosaldea Mankomunitateko partaide da, honek herriko hondakin solidoa tratatzeko zerbitzua ematen du, eta orain bilketa zerbitzua ere mankomunatzea erabaki badu ere, oraindik ez da ezagutzen noiz hasiko den.

Bestalde, udalari kontratatuta zuen bilketa zerbitzua bukatu zaio, eta CESPAS.A.ri eman zaio.

Udalbatzak ondorengoa erabaki du aho batez:

Zabor-bilketa eta zabortegira garraiatzeko zerbitzuaren kontzesio administratiboko kontratua luzatzea ondorengo epeetara arte:

a) Tolosaldeko Mankomunitateak martxan ipiniko duen bailarako zerbitzua hasi arte.

b) Bestalde, 2007ko martxoaren 1a arte.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, bertaratuek presako egoera adierazi zutenez, eta 781 /1.986 Legegintzako Errege-dekretuaren 51. artikulua arabera korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa ordezkatzeko zutenez, ondorengo gaia aztertu zuen udalbatzak:

## **10. PUNTUA**

### **ONARTZEA 2006rako UDALTALDE 21i EGIN BEHARREKO EKARPENA.**

Udaltalde 21ek (Ernioaldea), udal hau partaide izanik, 2006 urteko jardueraren ekarpen-proposamena aurkeztu du. Kopurua 4.925,93 euro da. Udalbatzak aho batez erabaki du proposamena onartzea eta ordainketa egitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **11. PUNTUA**

### **GALDERAK ETA ESKARIAK.-**

Galdera eta eskarien tartean honako gaiak aztertu ziren:

a) Marimi Ugalde alkateak adierazi du 2008ko Kilometroak Iruran egingo dela, Ikastolen federazioarekin atzo izandako bileran erabaki bezala. Erabaki horrekin pozik dagoela ere adierazi du eta azpimarratu du nolako lan-karga datorkigun guztioi gainera, udalari, ikastolari, gurasoei... Federazioaren eta inguruko ikastolen laguntza ere izango omen dugu.

b) Marimi Ugalde alkateak azaldu ditu Emakumearen egunean Iruran egingo diren ekitaldiak.

c) Marimi Ugalde alkateak adierazi du, iazko Tolosaldeko etengabeko ikaskuntza programa dela-eta, jende askok hartu duela parte antolatutako ikastaroetan; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin eta Cebanc erakunde antolatzailearekin bilera izan duela eta datorren ikasturterako diru-laguntza eskatuko dela.

d) Marimi Ugalde alkateak Zaharren Biltokiko berritze lanak aipatu ditu eta biharko geratu dela gas-hartunea egiteko.

e) Jose Luis Olano zinegotziak mendiko bideak seinaleztatzeko beharra azpimarratu du eta aurrekontu bat prestatzea eta, dagokionean, diru-laguntza eskatzea erabaki da.

f) José Luis Olano zinegotziak aipatu du Atxupiaga aldean entresaka egiten ari direla eta adi ibiltzeko udal-bideez egiten den erabilerarekin.

g) Maria Jesus Otaño zinegotziak kexa aurkeztu du, udal-zerbitzuek trafikoko isunak jartzeko duten sistemagatik.

Aztertzeko beste gairik ez zegoenez, 21:30etan amaitu zen bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN du.